



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/06/07 Udaletxean 18.00-19:30



Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri ekimena)
- Eurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Manuel Iturrioz (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaia landu zen:

1. **Aurreko aktaren onarpena**
2. **Sasietako galderen erantzuna**
3. **Komunikazioa**
4. **Hurrengo bilera**

Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta onartutzat ematen da.

Sasietako erantzunak

Sasietari egindako galderen erantzunak begiratu ditugu eta ondorengo iruzkin hauek jaso dira:

Arrasateko informazioa:

TEKNIKARIA: Sasietak honen inguruko informazioa ez dauka eta Arrasateko Udalarekin jarri gara harremanetan. Beraiek Debagoienako Mankomunitateak egin duela eta hauekin egon ginen. Hondakin mahaiko uztaileko bilerara gonbidatuko zaie beraien esperientzia azaltzera.

Komertzioen bilketako datua:

LANDARLAN: Datu hau noizbait eman beharko dute eta datu hau berriro eskatu behar zaio.

EAJ: Komertzioetako datua oso garrantzitsua da, kostu totaletik komertzioetako datua zenbatekoa den jakin behar dugu.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/06/07 Udaletxean 18.00-19:30



IRABAZI: Sasietak lehenengo bileran %28ko datu bat eman zuen baina ez hartzeko kontutan esan zuen eta komertzioetako zerbitzu hau ez dela moldatuko esan zuen.

LANDARLAN: Kostuz gain zenbat jasotzen den ere jakin behar dugu.

Alkateak deitu eta teknikariak eskaera formala egingo du.

Gaizki ateratako kuboetan abisua:

ALKATEA: Jakin zenbat abisu jarri diren.

Komunikazioa

UDAL ALDIZKARIA

ALKATEA: Ekainak 27rarte ezin da Udal aldizkaria zabaldu, hauteskunde garaia delako.

TEKNIKARIA: Aldizkarian maiatzeko datua badugu ere sartuko dugu.

IRABAZI: Aldizkarirako prestatu den testua oso light da.

TEKNIKARIA: Aldizkariko testuan edozein iruzkin egiteko denbora dago. Ekainak 17ko asterako epea duzue iruzkinak egiteko.

BEASAINGO EREDUA

TEKNIKARIA: Hondakin puntuetan kartelak jarrita daude eta ingurua garbiagoa dago. Sasietako teknikariaren arabera, hau honengatik ez da bakarrik baizik eta komertzioetan egiten ari den sentsibilizazio kanpainarengatik.

Orokorrean, komentatzen da hondakin puntua batzuk gaizki daudela baina hobetzen ari direla ematen du. Zakarrentziak, aldiz, oso gaizki daude.

LANDARLAN: Chip-dun edukiontzietara aldaketa egin duten eskualdeko udalerrietan hondakinen gaikako bilketa tasa jaitsi egin da (Olaberriako datua ez dauka). Zegama bakarrik igo da. Neurriak hartu behar dira.

BILKETA SISTEMAREN ALDAKETA

IRABAZI: Sistemaren aldaketa denbora honek ez du onurarik ematen.

ALKATEA: Ordiziak edukiontzia ordaindu behar zituela jakin zuenean kreditu aldaketa bat egin zuen edukiontzi hauen erosketa egiteko. Erosketa hau boletinean ekainaren 3an argitaratu da. 15 eguneko epea dago proposamenak aurkezteko. Edukiontzi marroiak Sasietan daude, chip-a jarri



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/06/07 Udaletxean 18.00-19:30



behar zaie. Poltsak hartzeko giltza erabiliko da edukiontzia irekitzeko. Edukiontzi grisak, horiak eta urdinak erosi behar dira. GFAko hondakinen dirulaguntzara edukiontzi hauen erosketa aurkeztu da. Helburua, aldaketa abuztuan egitea da. Edukiontzien kokapenak aztertzen ari dira.

IRABAZI: Edukiontzien ordainketaren inguruan, Sasietaren aurrean elkarrekin defendatu behar genuen edukiontzi hauen ordainketa ez dugula egingo. Sasietako patrimonioa da. Hau adostu genuen, denen artean defendatuko genuela. Hau aktan azaltzea eskatzen def.

ALKATEA: Nik eta nire partidu politikoak mahai honetako akordioa azaldu genuen eta edukiontzi hauek ez ordaintzea bultzatu genuen. Baina Sasietan junta iraunkor bat dago, apirilak 20an elkartu ziren, bertan 2 bildu, 1 EAJ, 1 PSE eta 1 independienteak osatzen dute. Denak erabaki zuten Ordizia eta ondorengo herriak ordaindu egin behar dutela.

Maiatzak 27ko asanblean EAJ, PSE eta independienteen aldeko botoekin eta beste talde politikoaren abstentzioarekin, BILDU eta Ordizia Orain, 2016 urtetik aurrera sistema bigarren aldiz aldatu behar duten udalerriek edukiontziak ordaindu beharko dituztela.

PATXI: Hondakin mahaiaren adostu zenak aurrera egin behar du.

LANDARLAN: Nik ezin dut esan adostu zela. Gainera, ez diot buelta gehiago emango eta oso gai konplexua da. Zer gertatu zen Lazkaorekin??

ALKATEA: Lazkaon berrerabili dira zeuden edukiontziak. Guk aldaketa iaz egin izan bagenu guri ordaindu egingo zitzagun. 2016 urtetik aurrera dator erabaki hau. Lazkaon iaz egin zen aldaketa.

EAJ: Mahai honetan erabaki bada edukiontziak ez ordaintzea, udaleko talde politiko guztiak hau defendatu behar dute. Udalerriko interesak bultzatu behar dira.

LANDARLAN: Ados, edukiontziak ez dira ordaindu behar baina udalerrri bakoitzak ere bere tasak ordaindu behar ditu, dena pakete bat da . Tasak ere aplikatzen dira errefusaren eskualdeko prezioaren datu proportzionala erabiliz.

IRABAZI: Ni ere horrekin ados nago eta defendatu behar dugu. Bilera batetan adostu genuen edukiontzien ordainketa ez genuela defendatuko.

LANDARLAN: Edukiontziak ez ordaindu baina ezta ere errefusan tasa eskualdeko prezioaren batz bestekoaren arabera ordaindu. Tasak asko igo dira.

ALKATEA: Tasak GHK-tik ezarrita datoz.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/06/07 Udaletxean 18.00-19:30



LANDARLAN: Baina Sasietak beste erabaki bat hartu dezake, errefusaren tasa biltzen denaren arabera ordaintzea.

IRABAZI: Honetaz hitz egin genuen galdeketaren aurretik eta hau ere defendatu egin behar dugu. Eginda dagoena ezin da aldatu baina nik hau aktan azaltzea nahi nuen.

INFORMAZIOA

LANDARLAN: Hondakinen puntuetan jarri beharrean informazioa portaletan jarri. Beasainen jarri den kartela hondakin puntu beltzetan jartzea nahikoa da.

IRABAZI: Pentsan zerbait jarri beharko genuke. Ahal bada ordaindu gabe baina ordaindu behar bada ordaindu egin beharko da.

ALKATEA: Aldizkarirako erabiltzen den informazioa portaletan jartzeko erabili daiteke.

LANDARLAN: Zenbat kostatzen den ere azaldu beharko litzateke. Diru kontuak azaldu.

Portaletan jartzeko informazioan ere aldaketak egiteko denbora duzue.

Puntu beltzak: eskarabilla, transferentzi gunea, poligonoan, San Juanen,.....

Sasietari galdetuko zaio zein diren puntu beltzak. Puntu hauetan kartelak jartzeko eskaera egingo zaio.

Zakarrontzietan beste zerbait jarri daiteke, goiko aldean pegatina batzuk jarri daitezke.

HONDAKINEN BILKETAKO ORDENANTZA

Denak adosten dute Ordiziarako ordenantza lantzen hasiko direla. Udallerri ezberdinetako ordenantza eredu ezberdinak eta Udalsarea 21eko ordenantza eredu pasako dira eta hauk lantzen hasiko gara.

Uztaileko bileran gai hau lantzen hasiko garela esan da.

Helburuko tasa (%85) noizko lortu nahi dugun ez da adostu, 2-3 urte hitz egin da, baina edukiontzia jarri ondoren egoera ezagutuko dugu eta honekin neurriak jarriko ditugu helburu horretara iristeko.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/06/07 Udaletxean 18.00-19:30



HERRIKO JAIK

Hondakinen inguruko informazioa eman behar da, hondakinen inguruko mezuak zabaldu behar dira: jaietako programan zerbait jarri, kuadrilletako bileretan zerbait esan, banatzen den orrialdetan informazioa jarri,....

Idea asko ditugu eta kronograma bat zehaztu beharko genuke, ideia hauek gauzatzeko datak jarri.

Uztaileko bileran jaien gaia landu beharko genuke. Denbora asko ez dagoenez, aurretik hau lantzen hasiko gara eta uztailean jarraituko dugu.

Edukiontzia bereziak jarri behar dira, erraztasunak eman behar dira. Sasiari galdetuko zaio ze zerbitzu eskainiko duen.

Plastiko bereziko basoak nora bota behar diren Sasiari galdetuko zaio.

Hurrengo bilera

Uztaileko bilera: uztailearen 5ean arratsaldeko 18:00etan.